DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola
Anoeta pasealekua, 18 | Tel. 943481850 | udala_kirolak@donostia.eus | www.donostiakirola.eus
20014 Donostia / San Sebastián

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, DONOSTIAKO PACO YOLDI UDAL GIMNASIOA ERRENTAMENDU-ARAUBIDEAREN BIDEZ (RENTING SISTEMA) KIROL MATERIALEZ HORNITZEKO ETA MATERIAL HORIEK BERTAN INSTALATZEKO PROZEDURA IREKIKO KONTRATUARENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honetan aipatzen den kontratuaren xedea da Donostiako Paco Yoldi udal kiroldegiko gimnasioa kirol materialez hornitzea, errentamendu bidez (renting sistema) .

Kontratuaren barruan sartzen da Paco Yoldi Udal Kiroldegiko gimnasioko egungo makineria eta pisu librea kentzea (ikus 1. eranskina), kontratua formalizatu eta 30 eguneko epean, eta material hori esleipendunak birziklatu beharko du. Gainera, birziklatzeko edukiontzietan utzi ezin den materiala garbigune batera eraman beharko da.

2. HORNIGAIEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Kontratuaren xede diren hornigaiak honela sailkatzen dira:

1. ESPARRUA.- Gidatutako makinen bidez, indarra lantzeko eremua
2. ESPARRUA.- Pisu libreen bidez, indarra lantzeko eremua
3. ESPARRUA.- Lan funtzionala eta luzatze ariketak egiteko eremua
4. ESPARRU.- Lan kardiobaskularra egiteko eremua

Enpresa lizitatzaileek kontratuan jasotako elementu guztien fitxa teknikoak aurkeztu beharko dituzte beraien eskaintzan (2. artxibo elektronikoan), elementuok eskatutako baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatu ahal izateko.

Esparru horietako bakoitzak hornigai desberdinak beharko ditu. Hona hemen:

1. esparrua- Indarra modu gidatuan lantzeko materiala

A.- Indarra lantzeko 17 makina.

Makina hauek behar dira, gihar-multzo hauek lantzeko (bakoitzetik bat):

- Bizeps Curl-a
- Trizeps luzapena
- Bularreko press konbergentea
- Peck-Deck-a
- Sorbaldako press konbergentea
- Press dortsala edo polea dortsala
- Dominatuak/hondo lagunduak
- Eserita arraun egiteko makina dibergentea
- Koadrizeps luzapena
- Curl zango eserita
- Prentsa zangoa
- Deltoideak alboetatik igotzea
- Abduktorea eserita
- Aduktorea eserita
- Ipurmasailetarako luzapena
- Polea bikoitzeko egitura, lan funtzionala egiteko

- Gerrialdeko bankua

Kasu guztietan, makina horiek gutxieneko ezaugarri tekniko hauek bete behar dituzte:

- **OROKORRAK:**
- Plaka-dorrearen goiko aldeak ateratzeko modukoa izan behar du, dorrearen mantentze-lana errazteko.
- Material guztiak behar adinako egonkortasuna izan beharko du berez, zoruan finkatzeko ainguraketarik egin behar ez izateko.
- Pisu-dorrera iritsi ahal izatea makinaren goiko aldetik
- Ariketak nola egin behar diren azaltzen duen panela, piktogramak baino erabiltzen ez dituena
- Botilak jartzeko euskarria eta osagarrietarako erretilua, makinaren egituran txertatuak. Telefono mugikorretarako euskarri berezia ere izan beharko dute.

- **LASTAK:**
- Indarra lantzeko makina guztiek gutxienez, 80 kg-ko lasta izango dute plaketan.

- **BIRATZE-PUNTUAK:**
- ABEC eskalako errodamenduak

- **TXASISA:**
- Altzairua, gutxienez, 2'4 mm lodi
- Sekzio eliptikoa edo zirkularra
- Soldadura elektrikoko altzairuzko hodiak
- Elektrostatikoki aplikatutako hautsez estalia

- **KARGA AUKERATZEKO GAILUA:**
- Kablez pisu-blokearen gainaldeari lotua

- **PISU-PLAKAK:**
- Altzairuzkoak, gehienez ere 15 mm lodi
- Nylonezko zorro doituak, barra gidetan poliki labainduko direla bermatzeko
- Akabera hauts zimurdunez estalia
- Marruskadura murrizteko sistemarekin, zarata arintzeko
- Plaken azpian gomazko kolpe-leungailua, kolpeak eta bibrazioak murrizteko

- **KABLEAK:**
- 5 mm-ko espezializazio militarreko kable batez estalirik
- Altzairu galvanizatua, gutxienez 5 mm-ko lodi, barrutik lubrifikatua
- Pisu-blokeko estalkia

- **POLEAK:**
- Estalita, lesio-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin

- **BESOAK:**
- Mugimendu isolaterala
- Artikulazioaren berezko mugimendua erreproduzitzen duen mugimendu konbergentea

- **TAPIZERIA:**
- Ertz guztiak josita, iraunkortasuna murrizten duten tolesik ez izateko

- **HELDULEKUAK:**
- Ez labaintzekoak, usain neutroa, eskuaren formadunak eta iraunkortasuna bermatuko duen materialaz eginak

- **ZELAREN DOIKUNTZA:**
- Gasez lagundutako doikuntza hidraulikoa, mugimendua erraztearren.

2. esparrua - Pisu libreen bidez, indarra lantzeko materiala

Pisu librearekin indarra lantzeko bankuak eta makinak:

- 5 x posizio askotarako bankuak
- 1 x press bankua
- 1 x press banku inklinatua
- 1 x press banku atzera inklinatua
- 1 x Scott bankua
- 2 x power rack kaiola-egitura
- 1 x smith kaiola-egitura gidatutako lanerako
- 1 x squat makina/ sentadilla diskoetarako kargarekin
- 2 x jasotze plataforma, power rackerako

Kasu guztietan, makina horiek ezaugarri tekniko hauek bete behar dituzte:

- **OROKORRAK:**
- Material guztiak behar adinako egonkortasuna izan beharko du berez, zoruan finkatzeko ainguraketarik egin behar ez izateko.
- Ariketa nola egin piktogramen bidez azaltzen duen panela
- Bankuetako eta kaioletako akaberak poliuretanoz babestuak izango dira, barrekin ukitzen diren aldeetan, iraunkortasun handiagoa izateko, barrak hobeto babesteko eta erabiltzaileek lesionatzeko arrisku txikiagoa izateko.
- Kaiola-egiturak jasotze-plataformak izango ditu, makinan bertan integratuak.

- **BIRATZE-PUNTUAK:**
- ABEC eskalako errodamenduak

- **TXASISA:**
- Tamaina handiko hodiak, 11 kalibreko (3mm) altzairuz eginak
- Ebakidura eliptiko edo zirkularra
- Soldadura elektrikoko altzairuzko hodiak
- Elektrostatikoki aplikatutako hauts estaldura

- **BESOAK:**
- Mugimendu isolaterala

- **TAPIZERIA:**
- Ertz guztiak josita, iraunkortasuna murrizten duten tolesik ez izateko

- **HELDULEKUAK:**
- Ez-labaingarriak, usain neutrokoak, eskuaren formadunak eta iraunkortasuna bermatzeko material batekin egindakoak

- **ZELAREN DOIKUNTZA:**

➢ Doikuntza hidraulikoa, gas bidez lagundutakoa, mugimendua errazteko

Ezaugarri tekniko espezifikoak:

1.- power rack kaiola-egitura

- Gehieneko neurriak: 215 x 160 x 250
- Dominatuen barra integratua
- Diskoak biltegiratzeko euskarriak
- Egituraren parte diren zutikako bi euskarri izan beharko ditu, dominatuen barrei heltzeko laguntza gisa.
- Barretarako euskarriak ere izango ditu
- Altxatze-plataforma bat izango du, power racken erdialdean jarri beharko dena.

2.- Smith kaiola-egitura gidatutako lanerako

- Gehieneko neurriak: 145 x 2,15 x 2,30
- Deskargatutako barraren hasierako pisua: 10-15 kg
- Barraren diametroa: 33 mm
- Barren muturrak, diametro olinpikoa (50 mm)
- Ibilbidearen luzera: gutxienez 150 cm
- Gutxienez 15 posizio kakodunak, pisua uzteko, 10 cm-ko tarteak utzita, gehienez.
- Diskoak biltegiratzeko euskarriak.

3.-Squat makina/sentadilla, diskoetarako kargarekin

Sistema pibotatzailearekin sentadillak egiteko makina, disko-karga duena, erabiltzaileari sentadilla egitean egonkortasuna eta segurtasuna ematen diona.

- Gutxienez 5 posizio eskaini beharko ditu erabiltzaile guztietara egokitzeko, eta gutxienez ere 150 cm eta 195cm arteko altuerako tartea izan beharko du, pertsona desberdinek erabili ahal izateko.
- Sorbaldetako kuxinen forma eta angeluek aproposak izan beharko dute erabiltzaileak segurtasun handiagoz pibotatzeko, aukera izan dezan mugimendu-tarte osoan posizioari eusteko.
- Ez labaintzeko plataforma bat izango du oinentzat.
- Biltegiratze-euskarriak izango ditu
- Onartzen den gehieneko zama: 270 kg arte
- Kargarik gabeko pisua: 15-20 kg

Diametro olinpikoko barrak (50mm), errodamenduekin eta diskoetarako topeekin:

- 3 barra – 220 cm
- 4 barra – 180 cm
- 3 Z barra

Pisu-diskoak:

- 8 x 0,5 kg
- 10 x 1,25 kg
- 10 x 2,5 kg
- 12 x 5 kg
- 12 x 10 kg
- 10 x 15 kg
- 10 x 20 kg
- 8 x 25 kg

Disko guztiek diametro olinpikoko zuloa (50mm) eta helduleku ergonomikoa izango dituzte, eta kautxuz edo antzeko material batekin estalita egongo dira, lurrean markarik ez egiteko.

Halterak, sorta hauek gutxienez:

- 3 x 2 kg
- 3 x 4 kg
- 3 x 5 kg
- 2 x 6 kg
- 2 x 8 kg
- 2 x 9 kg
- 2 x 10 kg
- 2 x 12 kg
- 2 x 14 kg
- 1 x 16 kg
- 1 x 18 kg
- 1 x 20 kg
- 1 x 22 kg
- 1 x 24 kg
- 1 x 26 kg
- 1 x 28 kg
- 1 x 30 kg
- 1 x 32 kg
- 1 x 34 kg
- 1 x 36 kg
- 1 x 38 kg
- 1 x 40 kg
- 1 x 42 kg

Haltera guztiek helduleku anatomiko ez-labaingarria izango dute eta material batez estalita egongo dira (poliuretano, uretano...), zoruan eta hormetan markarik ez uzteko.

Pisua biltegiratzeko egiturak:

- 2 x halterak gordetzeko erretilu bikoitzeko edo hirukoitzeko egitura (gutxienez, 30 haltera-pare gordetzeko balio behar du)
- 1 x halterak gordetzeko egitura bertikala, haltera arinak gordetzekoa
- 2 x barretarako euskarri bertikalak
- 3 x diskoetarako euskarri bertikalak

Babes-zoladura:

Esparru honetan, **entrenamendurako zoladura espezifikoa** ezarri behar da, kalitatekoa, iraunkortasun handikoa eta marken aurrean oso erresistentea: 5m x 25m-ko azalerakoa. Gutxieneko ezaugarri tekniko hauek bete beharko ditu:

- Pieza bakoitzaren tamaina, 90cm x 90cm
- Gutxieneko lodiera: 7 mm
- CE ziurtagiria
- Dentsitatea: 1.200kg/m³, UNE-53526 araudiaren arabera
- Gogortasuna: DIN 53505 araudiaren arabera
- Ura xurgatzeko gaitasuna: ASTM D570 araudiaren arabera
- Suarekiko erreakzioa: EN-13501-1 araudiaren arabera
- Inpaktuaren presio akustikoaren mailaren murrizketa, ISO 10140 eta ASTM E492 arauen arabera

- Labainketaren aurkako erresistentzia: EN-13036-4:2012 mota

Zoladura 86/106/EEC zuzentarauaren araberakoa izango da, eta EN 14041 araudiko xedapenak beteko ditu. Honek ezaugarri berezi hauek jasotzen ditu: suarekiko erreakzioa, formaldehidoen igorpena eta labainketaren aurkako erresistentzia.

Gainera, esparru honetako akabera egitean, lur mailara iristen den beheragune bat ezarri beharko material bera erabiliz, materiala ez altxatzeko edo erabiltzaileek estropezu ez egiteko.

3. esparrua - Lan funtzionala eta luzatze-ariketak egiteko aldea

Lan funtzionala egiteko egitura:

Lau zutabek osatzen dute egitura. Zutabe horiek elkarri lotuta daude goiko aldetik: zutabe bertikalen ezaugarri berberak dituzten lau zutabe horizontalek lotzen dituzte, eta lurrean ainguratu daitezke. Egiturak behar adinako egonkortasuna izan beharko du, kanpora ateratzen diren hanken edo euskarrien bidez finkatu behar ez izateko, horrek galaraziko bailuke ariketak behar bezala egitea. Egitura horren neurriak hauek izango dira: 1,75m alderik estuenean, eta 2,50m alderik zabalenean, eta 2,75 m-ko altuera. Gainera, elementu hauek izango ditu:

1,75 m-ko aldeetan:

- Barren bidez lotzea. Barrak material tekniko bigungarri eta irristagaitzez babestuta egongo dira aldeetako batean; lan funtzionalerako elementuak ainguratzeko (barra paraleloak, gomadun poleen sorta) balio behar dute, bai eta, aldi berean, egituraren barnealdetik, apaletarako eta materiala gordetzeko kaxetarako euskarri gisa ere (kettelbelak, baloi funtzionalak).

- Beste aldean, ainguraketak, hainbat altueratan material tekniko bigungarria eta irristagaitza duen barra bat jartzeko.

Egituraren goialdea:

- Egituraren goialdean, barrez egindako lotura. Barrak material tekniko bigungarriz eta irristagaitzez babestuak izango dira. Horrek bide emango du hainbat ariketa zintzilikatuta egiteko, eta lan funtzionalerako zenbait elementu esekitzeko (eraztunak, TRX)

2,5m-ko aldeetan:

- 3 euskarri, material tekniko bigungarriz eta irristagaitzez babestuak, aldeetako bakoitza zubietan ainguratua, ariketak egiteko eta lan funtzionalerako elementuak esekitzeko ahalbidetzen dutenak (TRX, eraztunak).

Kanpoko izkinek honako egitura eta elementu hauek, gutxienez, 45ºra ainguratzeko aukera izan beharko dute:

1. izkina – Barra olinpikorako ainguratze pibotagarria, barra olinpikoarekin
2. izkina – Minitramp bati eusteko ainguratzeak, altuera desberdinetan, errebote-ariketetarako, eta batailа-sokarako ainguratzea
3. izkina- Plataforma pliometriko bati hainbat altueratan eusteko ainguratzeak
4. izkina- Hegala duen elementua, elementuak zintzilikatu ahal izateko (boxeo-zakua)

Egiturak elementu hauek bildu eta integratuko ditu. Eremuan sartuko dira, eta lizitatzaileek fitxa teknikoak aurkeztuko dituzte:

- 1x dominada-barra, kurboa
- 1x dominada-barra, zuzena

- 2x barra barrubigunak, ainguratzeko zingilekin
- 1 x barra paralelo mugikorrak
- 1x plataforma pliometrikoa
- 1x boxeo-zakua (kita)
- 1 x koltxonetak gordetzeko apalak
- 2 x biltegiratzeko erretiluak
- 1 x kettlebells sorta: 2kg-4kg-6kg-8kg-10kg-12kg
- 1x baloi funtzional sorta: 3kg-4kg-5kg-6kg-7kg-8kg
- 1 x bataila-sokak
- 1 x euskarri pibotagarria, barrarekin lan egiteko, eta barra olinpiko bat
- 1 x gomadun polea-sorta bat, 3 tentsio desberdinetakoak
- 3 x dominada-barrak
- 1 x minitramp
- 2 x TRX esekidura-entrenatzailea
- egituran integratutako biltegiratze-kutxa

Babes-zoladura:

Esparru honetan, **entrenamendu funtzionalerako zoladura espezifiko bat** jarri behar da, kalitatekoa, iraunkortasun handikoa eta marken aurrean oso erresistentea: 10m x 8m-ko azalerakoa. Gainera, gutxieneko ezaugarri tekniko hauek bete beharko ditu:

- Pieza bakoitzaren tamaina, 90cm x 90cm
- Gutxieneko lodiera: 7 mm
- CE ziurtagiria
- Dentsitatea: 1.200kg/m³, UNE-53526 araudiaren arabera
- Gogortasuna: DIN 53505 araudiaren arabera
- Ura xurgatzeko gaitasuna: ASTM D570 araudiaren arabera
- Suarekiko erreakzioa: EN-13501-1 araudiaren arabera
- Inpaktuaren presio akustikoaren mailaren murrizketa, ISO 10140 eta ASTM E492 arauen arabera
- Labainketaren aurkako erresistentzia: EN-13036-4:2012 mota

Zoladura 86/106/EEC zuzentarauaren araberakoa izango da, eta EN 14041 araudiko xedapenak beteko ditu. Honek ezaugarri berezi hauek jasotzen ditu: suarekiko erreakzioa, formaldehidoen igorpena eta labainketaren aurkako erresistentzia.

Gainera, esparru honetako akabera egitean, lur mailara iristen den beheragune bat ezarri beharko material bera erabiliz, materiala ez altxatzeko edo erabiltzaileek estropezu ez egiteko.

Luzatze ariketak egiteko eremua:

Horma-barrak (5 modulu), kalitate handiko pago-egurrez eginak. Langek 13 cm-ko hondoa eta 33 mm-ko lodiera izango dute, eta ertzak biribilduta egongo dira. Barra obalatuak, araudiaren araberakoak. Egur guztia kolore

naturaleko berniz ez-toxikoz tratatuta egongo da. 2,6 m x 1 m-ko neurriak. Ainguratzeak barne. EN12346 araudiaren araberakoa.

2 x luzatze ariketak egiteko bankuak, ezaugarri hauek dituztenak:

- **TXASISA:**
- Gutxienez, 2,5 mm-ko lodiera duen altzairua
- Ebakidura eliptiko edo zirkularra
- Soldadura elektrikoko altzairuzko hodiak
- Elektrostatikoki aplikatutako hautsez estalia

- **TAPIZERIA:**
- Ertz guztiak josita, iraunkortasuna murrizten duten tolesik ez izateko

- **HELDULEKUAK:**
- Ez-labaingarriak, usain neutrokoak, eskuaren formadunak eta iraunkortasuna bermatzeko material batekin egindakoak

5 koltxoneta, tatami motakoak, 2m x 1m x 4cm, ezaugarri hauek dituztenak:

- 100 kgm3-ko dentsitatea duen poliuretano-aparrez betetako barrualdea

- PVCz plastifikatutako olanazko zorroa, suaren aurkako lehen mailako B2 mailakoa, bi aldeetan lakatua, koltxoneta bi aldeetatik erabili ahal izateko.

Ezaugarri bereziak: jostura bikoitzak zorroaren barnealdean, marruskadurarik izan ez dadin.

- Segurtasunezko kremaileradun itxitura, koltxonetaren luzera eta zabalera batean hegal bikoitzarekin babestuta
- Ertz indartuak koltxonetaren 4 angeluetan.
- Metalez inguratutako zuloak, airea irteteko
- Heldulekuak, erraz garraiatu ahal izateko

4. esparrua- Lan kardiobaskularrerako eremua

Eremu honen barnean, ondoren zehazten diren elementuak sartzen dira.

Gainera, material horrek gutxieneko ezaugarri tekniko hauek bete beharko ditu:

I 10 zinta gurpildun

- 8 kontaktu motelgailu eduki beharko ditu, gutxienez, taularen eta egituraren artean.

- Lasterketa gunearen gutxieneko azalera, 55 x 152 cm.

- Pantailan ageri beharreko informazioa: denbora, inklinazioa, abiadura, distantzia, entrenamendua, bihotz taupaden maiztasuna eta kaloriak.

- LCD pantaila kapazitiboa, 15 hazbetekoa, gutxienez.

- Orduko 0,8 eta 25 km bitarteko lastertasun tarteak.

- % 0-15 arteko inklinazioa, biak barne.
- 4 zaldi potentziako (HP) motorra, gutxienez.
- Atzeko eta aurreko arrabolak, gutxienez 9 cm-koak.
- Alboko eskudela, gutxienez 41 cm-koa.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka
- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez).

II 7 makina eliptiko luze

- Gutxienez, 50 cm-ko luzerako oinkada.
- Pedal ez-labaingarriak, 38 cm-ko luzerakoak, gutxienez.
- 20 erresistentzia maila, gutxienez.
- Lan inklinatua egiteko aukera, gutxienez 30 graduko tartera arte.
- LCD pantaila kapazitiboa, 10 hazbetekoa, gutxienez.
- Bihotz taupaden maiztasunaren sentsorea heldulekuetan
- Hasiera automatikoa, jarduerari ekitean.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka.
- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez).

III 4 makina eliptiko motz

- Jardueraren informazioa ematen duen kontsola:
    - Distantzia
    - Erresistentzia maila
    - Kaloriak
    - Kadentzia
    - Wattak
    - Bihotz taupaden maiztasuna
- Atzetik argitutako *displaya*, argirik ez dagoenerako.
- Potentzia neurgailua, wattetan.
- Bihotz taupaden igorgailuekin bateragarria den hargailua.
- Bluetooth teknologia, kanpo gailuak konektatzeko.

- Posizio sentsoredun erresistentzia magnetikoa, gutxienez 20 erresistentzia maila duena.
- Korrosioaren aurkako altzairuzko egitura.
- Gurpilak, erraz garraiatu ahal izateko.
- Egituraren erabateko babesa, karkasa bidez.
- Botilak jartzeko euskarri integratua.
- Egokia 150 kg arteko erabiltzaileentzat.

IV Pauso aldakorreko 3 makina eliptiko

- Erabiltzailearen mugimendura egokitzeko moduko zangak
- Pedal ez-labaingarriak
- 20 erresistentzia maila, gutxienez
- LCD pantaila kapazitiboa, 15 hazbetekoa, gutxienez.
- Bihotz taupaden maiztasunaren sentsorea heldulekuetan.
- Edalontzi euskarri ateragarria.
- Hasiera automatikoa, jarduerari ekitean.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka
- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez).

V Amaierarik gabeko eskaileren bi makina

- Maila irristagaitzak, gutxienez 25 cm-ko sakonera x 50 cm-ko zabalera x 20 cm-ko altuera dutenak.
- Gutxienez, 10 ariketa programa.
- LCD pantaila kapazitiboa, 10 hazbetekoa, gutxienez.
- Bihotz taupaden maiztasunaren sentsorea heldulekuetan
- Hasiera automatikoa, jarduerari ekitean.
- Gutxieneko tartearen maiztasuna, 20-160 maila/min.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka

- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez).

VI 8 bizikleta bertikal (zela zabala)

- 20 erresistentzia maila, gutxienez
- LCD pantaila kapazitiboa, 10 hazbetekoa, gutxienez.
- Bihotz taupaden maiztasunaren sentsorea heldulekuetan.
- Edalontzi euskarri ateragarria.
- Hasiera automatikoa, jarduerari ekitean.
- Tableta edo telefonorako euskarria.
- Zela bertikalean erregulatzeko sistema.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka.
- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez) .

VII 2 bizikleta etzan (horizontal)

- Bizikletara erraz igotzeko diseinua; erdialdeko barraren altuera 15 cm-koa izango da, gehienez.
- 20 erresistentzia maila, gutxienez
- LCD pantaila kapazitiboa, 10 hazbetekoa, gutxienez.
- Bihotz taupaden maiztasunaren sentsorea heldulekuetan.
- Edalontzi euskarri ateragarria.
- Hasiera automatikoa, jarduerari ekitean.
- Tableta edo telefonorako euskarria.
- Bizkar etzangarria, erabiltzaileari egokitzeko, eta zulatua, transpirazioa errazteko.
- Mugikorrak kargatzeko USB ataka.
- Softwarea bertan eguneratzeko aukera (alanbrerik gabe edo USB bitartez).

VIII 1 bizikleta, goi atalekoa (handbike)

- Biela independenteak, askotariko mugimenduak egitea ahalbidetzen dutenak
- Zela ergonomikoa, eserita edo zutik lan egiteko aukera ematen duena.
- Eserleku desmuntagarria, gurpil aulkiarekin sartzeko.

- Bielen altuera doigarria, pertsona bakoitzari hobeto egokitzeko eta muskuluak lantzeko tarte handiagoa izateko.

- Kate bidezko transmisioa

- Ant+ teknologiako kontsola, jardueraren informazioa ematen duena:

    - Distantzia

    - Kadentzia

    - Bihotz taupaden maiztasuna

- Botila jartzeko euskarria, bizikletan integratuta

- Gurpilak, erraz garraiatu ahal izateko

- Egokia 150 kg arteko erabiltzaileentzat

IX 8 ciclo indoor bizikleta

- Kontsola, jardueraren informazioa ematen duena

    - Distantzia

    - Erresistentzia maila

    - Kaloriak

    - Kadentzia

    - Wattak

    - Bihotz taupaden maiztasuna

- Atzetik argitutako *displaya*, argirik ez dagoenerako.

- Potentzia neurgailua, wattetan.

- Bihotz taupaden igorgailuekin bateragarria den hargailua.

- Bluetooth teknologia, kanpo gailuak konektatzeko.

- Poly-V uhal ez-labaingarri bidezko trakzioa, doikuntzarik behar ez duena.

- Posizio sentsoredun erresistentzia magnetikoa, gutxienez 20 erresistentzia maila duena.

- Kirol zela anatomikoa.

- Bulkada bidezko larrialdiko etengailua, EN-957-10 araudia betetzeko.

- Atzeko 6061 T6 bolantea, aluminiozkoa, babesarekin.

- Korrosioaren aurkako altzairuzko egitura

- Egituraren erabateko babesa, karkasa bidez.

- Pedal mistoak eta SPD sistemarekin bateragarriak.

- Eskulekua eta zela bertikalean zein horizontalean doitzeko aukera.
- Eskulekua eta zela bertikalean zein horizontalean erregulatzeko neurri markak
- Botila jartzeko euskarria, bizikletan integratua.
- Babesa atzeko hanketan, hedadura eremurako.
- Gurpilak, erraz garraiatu ahal izateko
- Egokia 150 kg arteko erabiltzaileentzat.

X 4 arraun ergometro

- Kate nikeleztatua, hobeto mantendu dadin.
- Katearen ahokaleku erabat itxia.
- Hasiera automatikoko kontsola, jarduerari ekitean.
- Ez du konexio elektrikorik behar
- Kontsola, jardueraren informazioa ematen duena:
    - Denbora
    - Erritmoa
    - B/min
    - Distantzia
    - Wattak
    - Kaloriak
    - Bihotz taupaden maiztasuna
- Bluetooth teknologia, kanpo gailuak konektatzeko

XI 2 eski simulatzaile

- Plataforma bat, hormara ainguratuz gero, egonkortasuna izan dezan
- Kontsola, jardueraren informazioa ematen duena:
    - Denbora
    - Erritmoa
    - B/min
    - Distantzia
    - Wattak
    - Kaloriak

- Bihotz taupaden maiztasuna

- Bluetooth teknologia, kanpo gailuak konektatzeko

XII Crossfit motako 2 zinta gurpildun

- Autoelikatua - ez du konexio elektrikorik behar.
- Kontsola programagarria (bitarteak, helburu programak, denbora, kaloriak...)
- Bluetooth bidez konektatzeko aukera
- Kontsola, jardueraren informazioa ematen duena:
    - Denbora
    - Abiadura
    - B/min
    - Distantzia
    - Wattak
    - Kaloriak
    - Bihotz taupaden maiztasuna (ANT + teknologia edukiko du).
- Altzairuzko egitura eta eskudela, gehiago irauteko.
- Garraio gurpil integratuak, mugitzen eta jartzen errazak.

XIII 2 airbike crossfit bizikleta

- Kontsola programagarria (bitarteak, helburu programak, denbora, kaloriak...)
- Bluetooth bidez konektatzeko aukera
- Kontsola, jardueraren informazioa ematen duena:
    - Denbora
    - Abiadura
    - B/min
    - Distantzia
    - Wattak
    - Kaloriak
    - Bihotz taupaden maiztasuna (ANT + teknologia edukiko du).

- Zela bertikalean zein horizontalean doitzeko aukera.
- Aurrez zehaztutako entrenamendu programa.
- Garraio gurpil integratuak, mugitzen eta jartzen errazak.
- Altzairuzko haizagailua, 65 cm-ko diametrokoa gutxienez.
- Ez labaintzeko eta ez transpiratzeko materialez egindako heldulekuak.
- Besoekin edo hankekin lan independentea egiteko aukera.
- Material erresistentearekin egindako birabarkiak, gehiago irauteko.

3. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK

Esleipendunak hilean behin egin beharko du makina guztien jarraipena, prebentzioko mantentze lanak edo zuzentzeko lanak egiteko. Matxurarik badago, berriz, lehenbailehen konponduko du (gehienez, 72 orduko epean). Kontratua indarrean dagoen bitartean, gutxieneko zerbitzu hauek eman behar ditu esleipendunak:

- Makinak aztertzea, mekanismoak kontrolatzea zein doitzea eta makinen funtzionamenduan sor daitezkeen arazoak antzematea.
- Arreta handiz garbitzea elementu kardiobaskularrak, karenatuak, kromatuak, plastikoak, esmaltatuak, tapizatuak eta abar, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko garbiketa zerbitzuak egiten dituen ohiko garbiketa lanak eragotzi gabe.
- Elementu kardiobaskularren engranajeak eta atal mugikorrak (makina kardiobaskularren kateak eta errodamenduak, makinen kableak) garbitu eta koipeztatzea.
- Makinak mantentze egoera egokian egoteko beharrezkoak diren elementu guztiak konpontzea, tapizatuak barne.
- Mantentze lanen barnean sartuta egongo dira horretarako beharrezkoak diren material eta baliabide osagarri guztiak (pintura, koipeztatzaileak, tapizak...); hala ere, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko arduradunak aldez aurretik onartu beharko ditu konponketa lanak.

- Mantentze lanen barnean egongo da lehiaketaren xede diren makinen piezak eta ordezko piezak konpondu eta ordeztea.

Lan horiek mantentze lanen barnean sartuta egongo dira, baita erabiltzaileek makinak modu ezegokian erabiltzen dituztenean ere. Hala ere, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak ahalegina egingo du publikoak makinak modu egokian erabil ditzan, horretarako bere esku dauden baliabideak erabiliz.

Halaber, esleipendunak, astean behin egiten duen bisitaldian, makina bakoitzaren fitxa bete beharko du: makina bakoitzaren inguruko informazio eguneratua zehaztuko du bertan, baita egindako mantentze lanak ere, hala, makina bakoitza zenbat hondatzen den aztertu ahal izateko. Horrez gain, hiru hilean behin txosten bat bidali beharko dio Donostiako Kiroletako Udal Patronatuari, makinen egoeraren eta egindako konponketen berri emateko.

Matxurarik badago, Donostiako Kiroletako Udal Patronatutik matxuraren oharra bidali (mezu elektroniko bidez, kudeaketa aplikazio bidez edo bestelako bideen bitartez) eta hurrengo 72 orduetan konpondu beharko da. Epe horretarako lanegunak bakarrik hartuko dira kontuan; beraz, ez dira kontuan hartuko ez larunbatak, ez igandeak, ez eta urteko 14 jaiegunak ere.

Makina jakin bat konpontzeko orduan, biltegian ez badago beharrezkoa den pieza edo ordezko pieza, bai tamainagatik, bai arraroa delako, enpresa esleipendunak makina konpontzeko beste epe bat proposatuko du, arrazoizkoa betiere. Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak onetsi beharko du epe berri hori, eta esleipendunak bermatu beharko du makina konponduko duela epe horretan. Hala ere, konpontzeko epea 7 egunetik gorakoa izatea espero bada, makina matxuratuaren ordez haren berdina edo antzekoa den beste bat jarri beharko da.

Mantentze lanen (prebentzioko mantentze lanak, lan zuzentzaileak...) kudeaketarako prozedura idatzia aurkeztu beharko du kontratistak exekuzioa hasi ostean, eta bertan zehaztu beharko du kontraturako zehaztutako epeak, errutinak eta baliabideak (bai baliabide materialak bai giza baliabideak).

4. ERRENTARIAREN BETEBEHARRAK

Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak bere gain hartzen ditu betebehar hauek:

- Horniduraren xede diren makinetan antzemandako matxuren berri ematea.
- Esleipendunak bere kontura egin beharreko egiaztapen edo konponketa lanen zaintza erraztea
- Makina bakoitza nola erabili behar den erakustea erabiltzaileei, makinak behar bezala erabiltzen direla bermatzeko.
- Harremanetarako pertsona bat edukitzea, kontratuaren inguruan sortzen diren gorabeherei erantzuteko.
- Kontratatutako hileko zenbatekoa ordaintzea, esleipendunak kontratu honetan xedatutako betebeharrak betetzen dituela egiaztatu ondoren.

5. KONTRATUAREN IRAUPENA

Lehenik eta behin, kirol-materiala kentzeko epea 30 egunekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik. Era berean, kirol-materialaren instalazioa 15 egunekoa izango da gehienez, aipatutako materiala kentzen denetik zenbatzen hasita.

Bestalde, errentamenduaren iraupena 5 urtekoa izango da. Denbora-tarte hori igarotakoan, esleipenduna arduratuko da material guztia 30 eguneko epean kentzeaz, eta materiala birziklatu egin beharko da. Erretiratzelan hori kontratuan sartuko da, eta esleipendunaren kontura izango da.

6. ORDAINKETAK

Hilabete amaieran egingo da errentamenduaren ordainketa, dagokion hileko faktura jaso eta esleipendunak betebehar guztiak bete dituela egiaztatu ondoren.

Donostia, 2021eko uztailaren 13an.

Kirol Jardueren teknikaria

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Donostia Kirola

Sin. Eukeni López

1. ERANSKINA: KENDU BEHARREKO ELEMENTUAK

Marca	Su nº Máquina	Modelo
SALTER	001	M832 CINTA DE CORRER
SALTER	003	M832 CINTA DE CORRER
FIT BIKE	006Et	FIT BIKE (roja)
FIT BIKE	008Et	FIT BIKE
FIT BIKE	009VAEt	FIT BIKE
SALTER	010	M845 GIRO
FIT BIKE	010Et	FIT BIKE
SALTER	011	M845 GIRO
SALTER	012	M845 GIRO
SALTER	020	M354 BICICLETA MAGNETIC
SALTER	022	M354 BICICLETA MAGNETIC
SALTER	025	M354 BICICLETA MAGNETIC
SALTER	027	M8530 ELIPTICA
SALTER	028	M8530 ELIPTICA
SALTER	029	M8530 ELIPTICA
SALTER	030	M-3530 ELIPTICA FUSION
SALTER	035	M-350 MAGNETIC STEPPER
SALTER	036	M-350 MAGNETIC STEPPER
SALTER	037	M-850 STEPPER-INDUCTION BRAKE SYSTEM
SALTER	038	M-850 STEPPER-INDUCTION BRAKE SYSTEM
CONCEPT 2	039	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	040	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	041	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	042	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	043	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	044	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
CONCEPT 2	046	REMO ERGOMETRO
CONCEPT 2	051	REMO ERGOMETRO CONCEPT II
TECHNOGYM	052	M-014 PULLEY
TECHNOGYM	053	M-428 - M-421 ERCOLINA
TECHNOGYM	054	M-428 - M-421 ERCOLINA
TECHNOGYM	057	M-010 LEG CURL
TECHNOGYM	058	M-017 ADDUCTOR
TECHNOGYM	060	M-042 STANDING GLUTEOS
TECHNOGYM	061	M-015 SITTING CALF
TECHNOGYM	062	M-036 LEG EXTENSION
TECHNOGYM	063	M-048 SHOULDER PRESS
TECHNOGYM	064	M-028 ERCOLINA
TECHNOGYM	065	M-013 PECTORAL
TECHNOGYM	066	M-057 ABDOMINAL CRUNCH ROM
TECHNOGYM	070	M-048 SHOULDER PRESS
SALTER	070A	M-832 CINTA DE CORRER
TECHNOGYM	071	M-031 ROWING TORSO
TECHNOGYM	073	M-013 PECTORAL
TECHNOGYM	074	M-012 LAT MACHINE
TECHNOGYM	076	C-010 DOMINADAS FONDOS
TECHNOGYM	077	C010 DOMINADAS FONDOS
TECHNOGYM	078	BANCO ABDOMINALES
TECHNOGYM	079	BANCO ABDOMINALES P018
TECHNOGYM	080	P-025 LUMBARES 45º
TECHNOGYM	081	M-028 ERCOLINA
SALTER	081A	M-3540 BICI
SALTER	082A	M-3540 BICI
SALTER	083A	M-3540 BICI
SALTER	084A	M-3540 BICI
SALTER	085A	M-3540 BICI
SALTER	086A	M-3540 BICI
TECHNOGYM	087	M-019 PECK DECK
TECHNOGYM	088	M-049 VERTICAL TRACTION